



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2024ko URTARRILA - 249. zenbakia

Bertsolamintza jardunaldiak egingo ditugu martxoan

Nondik eta zeri kantatzen diogu? izenburupean dator aurtengo edizioa. Martxoaren 13aren eta 23aren artean izango dira jardunaldiak.

Bertsogintzaren gogoeta plaza bueltan da: aurtengo martxoaren 13aren eta 23aren artean egingo da Bertsolamintza. Aurtengoan bertsoaren kokalekuari eta begiradari egingo zaio galdera: nondik abesten den, zeri begira. Horretarako, egitarau oparoa antolatzen ari gara, bost egunetan banatuta.

Saioak Euskal Herri osoan izango dira: martxoaren 13an, Gasteizen; martxoaren 14an, Bilbon; martxoaren 20an, Itsasun; eta martxoaren 21ean, Iruñean. Saio horiek arratsaldean izango dira. Martxoaren 23an Amasa-Villabonan izango den goizeko saioak biribilduko ditu jardunaldiak.

Bertsogintzari begirako jardunaldiak izan arren, hainbat helduleku izango dituzte gaiek, beste edozein kultur diziplinarako irakurketak ere ahalbidetuz; ongietorria, beraz, jakin-mina duen edonor. Laster ezagutaraziko ditugu hitzaldi eta hizlariak.

30 urtez gogoetan

1993an antolatu genuen lehen aldiz Bertsolamintza. Harrez geroztik, maiztasun jakinik barik, gogoeta plazak antolatzen joan da Bertsozale Elkartea, bertsoaren orainaz, geroaz eta hamaika gaiz hausnartzeko. Izan ere, horixe izateko ambizioz sortu genuen plaza hau: gogoeta bultzatzeko. Eta, 30 urte beranduago, horretan dirau.

2019ko udaberrian egin genituen azken jardunaldiak. Amaia Agirrek, Amets Arzallusek, Asier Galarzak, Eli Pagolak, Joanes Illarregik, Jokin Bergarak, Maider Arregik, Maite Berriozabalek, Miren Artetxek, Sustrai Colinak eta Xabier Aierdik hartu zuten parte ordukoan, eta mamidun solasaldiak atera ziren: transgresioaz, bertso saioen formatuen inertziak, hizkuntza ideologiaz, feminismoaz, bertsolari gazteen bizipenez edota iritzi publikoaz hitz egin zen, besteak beste.



2019an egin ziren azken Bertsolamintza jardunaldiak. //XDZ



**AMETS
ARZALLUS ANTIA**
Hendaia, 2024-01-14
Ipar Euskal Herriko Harrera
Taldearen aldeko saioa

Doinua: *Orhiko xoria Orhin*

Orhiko xoria Orhin dio kantu izenak kabia barnetik deika beti darabil senak tarteka izaten ditut nik herri min eztenak hondartzako, Orioko, haurtzaroko eszenak (tarteka izaten ditut nik herri min eztenak) pentsa zer sentitu lezaken itzuli ezin denak.

Martxan da Arabako Bertsolari Txapelketa

Urtarrilaren 28an hasi eta martxoaren 16an amaituko da, Gasteizko Principal Antzokian. Guztira, 18 bertsolarik hartuko dute parte txapelketan.

Iazko udazkeneko sailkapen fasearen ostean, heldu da 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketa. Sei saiok osatuko dute txapelketa: hiru final laurden, bi finalurreko eta finala, Gasteizen. Saio horietan guztietan, 18 bertsolari arituko dira kantuan: iazko finaleko bost finalista eta sailkapen faseko 13 bertsolari.

Izarrako saioak eman die hasiera final laurdenei. Horren ostetik, Oiongo eta Laudioko saioek osatuko dute txapelketako lehen fasea. Lehen fase horretatik, 12 bertsolari sailkatuko dira, eta bi finalurrekotan banatuko dira: Aramaion eta Dulantzin. Bi saio horietan abestuko dutenen erdiak sailkatuko dira finalera, Gasteizko Principal Antzokian, martxoaren 16an.

Arabako lehen Bertsolari Txapelketa antolatzen duen 40 urte bete diren honetan, herrialdeko bertsolaritza bizirik eta gazte dagoela azpimarratu dute antolatzaileek. Horren seinale da bertsolarien arteko aniztasuna eta belaunaldi artekotasuna. Izan ere, bertsolari gazteenaren, eta zaharrenaren artean, lau hamarkadako tartea dago: Maddi Agirre da gazteena, 19 urterekin; eta Rikardo Gonzalez de Durana zaharrena, 65ekin. Gazteena izateagatik, ordea, Agirre ez da berria txapelketan: eta, bera bezala, gainontzeko bertsolari guztiek ere ez dute lehen aldia aurtengo txapelketan. Guztiak daude arituta aurretik.

Bertsolariak soilik ez, ordea, gainontzeko lantaldeen lana ere azpimarratu du Arabako Bertsozale Elkartek. Bertsolariei gaiak jartzen 13 lagun ibiliko dira, eta beste 9 epaitzen.

Sarrerak salgai

Final laurdenetako eta finalurrekoetarako sarrerak salgai daude bertsosarrerak.eus atarian. Bazkideek 5 eurotan erosi ahalko dituzte final laurdenetako sarrerak eta 7an finalurrekoetakoak. 16 urtetik beherakoek dohainik izango dituzte lehen bi faseetako sarrerak.

Finaleko sarrerak Principal Antzokiko bideetatik baino ezin dira erosi: telefonoz, antzokiaren webgunean ala leihatilan. Bazkideek 16 eurotan erosi ahalko dituzte, eta 16 urtetik beherakoek 10 eurotan.



- Urtarrilak 28:** Izarrako Kultur Etxean, 17:30ean
- Otsailak 4:** Oiongo Zinema aretoan, 17:30ean
- Otsailak 11:** Laudioko Kasinoan, 17:30ean
- Otsailak 24:** Aramaioko Kultur Etxean, 17:30ean
- Martxoak 2:** Dulantziko Kultur Etxean, 17:30ean
- Martxoak 16:** Gasteizko Principal Antzokian, 17:30ean



Urtarrilaren 13an aurkeztu zen Arabako Bertsolari Txapelketa. //XDZ

Bertso Udalekuetako hezitzaileen izen-ematea hasiko da laster

Bertso Udalekuetan begirale, zuzendari edota sukaldari aritu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute otsailaren 1etik 18ra bitarte; begirale praktikak egin nahi dituztenek ere eman ahalko dute izena.

Urtero legez, aurtengo udan ere Bertso Udalekuak izango ditugu. Aurtengo edizioko txandak Bidarrain, Larraulen, Uitzin eta Zuhatzan izango dira. Udalekuetako lantaldeek (hezitzaileak, zuzendariak, sukaldariak eta begirale praktiketako ikasleak) laster izango dute izena emateko aukera: otsailaren 1etik 18ra bitarte, bertsozale.eus webgunean.

Lau txandak uztailean izango dira, gaztetxoan adinaren arabera banatuta. Deialdia lantaldeko funtzio guztietarako bada ere, Zuhatzako txandan ez da sukaldari eskaintzarik egongo, eta Bidarraikoan ez da praktiketako begiralerik izango.

Behin izen-emate epea bukatuta, apirilean emango dugu lantaldeen eta txanden berri. Bertso Udalekuetako hezitzaileak prestaketa asteburuan elkartuko dira ondoren, maiatzaren 17tik 18ra Larraulgo aterpetxean (Gipuzkoa). Bertan parte hartzea ezinbestekoa izango da, Bertso Udalekuen antolaketa ona ziurtatzeko.

Gazte parte-hartzaileen izen-ematea

Gaztetxoan izen-ematea aurrerago izango da: martxoaren 4tik aurrera, bertsozale.eus webgunean. Zehazki, martxoaren 4tik 17ra irekiko da izen-ematea bertso-eskolakoak diren edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarte baxkide duten gazteen kasuan, eta martxoaren 20tik apirilaren 15era bitarte irekiko da izen-ematea gainerako interesdunentzat, geratzen diren tokiekin.

Gogoraziko dizkizuegu datak garaia hurbildu ahala!



Hezitzaileen izen-ematea otsailaren 1ean hasiko da eta martxoaren 4an gazte parte-hartzaileena //XDZ

ZUHATZA (Araba) – 9-11 urtekoak

Datak: Uztailak 24-28

Adina: 9-11 urte

Kuota: 245€

Hezitzaile rolak (hezitzaileen deialdirako):

Zuzendaria

Begiraleak

Praktikaldikoak

LARRAUL (Gipuzkoa) – 12-13 urtekoak

Datak: Uztailak 8-14

Adina: 12-13 urte

Kuota: 280€

Hezitzaile rolak (hezitzaileen deialdirako):

Zuzendaria

Begiraleak

Sukaldariak

Praktikaldikoak

UITZI (Nafarroa) – 14-15 urtekoak

Datak: Uztailak 25-31

Adina: 14-15 urte

Kuota: 280€

Hezitzaile rolak (hezitzaileen deialdirako):

Zuzendaria

Begiraleak

Sukaldariak

Praktikaldikoak

BIDARRAI (Baxenabarre) – 16-18 urtekoak

Datak: Uztailak 15-24

Adina: 16-18 urte

Kuota: 360€

Hezitzaile rolak (hezitzaileen deialdirako):

Zuzendaria

Begiraleak

Sukaldariak



Puntu jarrita

GARAZI MENDOZA AGIRRE

Urteak, bizitzako etapa batzuk (baita psikoterapia saio pare bat ere) pasa behar izan dira bertso munduan nire habia topatu dudan arte. Umetan bertso-eskolan hasita, hezkuntza arautuan hala behartu aurretik, eroso sentitu behar nuen mundu bat omen zen bertsolaritzarena. Baina ez nuen lortzen guztiz neurea izatea. Izan ere, modu militante batean bertsozalea izan arren, dena delakoagatik oholtzara ausartzen ez diren askok bezala, nire burua mundu horretatik kanpo sentitu nuen.

Baina, zorionez, nerabezaroa joatearekin batera gure burua gehiago maitatzeko gai izaten gara, iruzurtiaren sindromea apaldu eta maite dugunaz, garen horretaz, inguratzeko. Konturatzen gara lotsak zenbat mundu kentzen dizkigun. Zuri esker, Jone, "lotsagabe" koadrila batekin bertso-eskolan denbora galtzeak merezi zuela sinetsi zenuelako, konturatu ginen txapel baten bila doan bertsolari izan gabe ere egin daitekeela bertsotan, oholtzara igotzea ez dela ezinbesteko baldintza, zilegi dela bertsoaz horrela ere gozatzea eta bertsolaritza bizitzeko modu anitz daudela.

Hor aurkitu nuen nire lekua, bertso-eskolakoak bakarrik egon arren onenak ziren saioetan, afarietan, parrandetan. Presio eta aspirazio gabe bizi daitekeen bertsoan. Taket bertso-eskolan esaten den bezala, basatzen aurkitu nuen nire lekua. Basatza hori dut nik etxe. Eta hortik, etxeke babes horretatik, naiz gai gaur egun munduratzeko. Babestuta sentituz askatu dut nire bertsozaletasuna, zilegitasuna sentitu dut nire burua trebatzeko eta orain arte ausartu ez naizen espazioetara salto egiteko. Eta horrela sentitzen naiz, aseta, bertso munduan, besteetan bezala, norbere gaitasunetatik eta aukeretatik ahal duguna ematean sentitzen garen bezala.

Eta zuk, Jokin, zer da (zure) bertso mundutik jaso duzun onena? Nolabait eraldatu nahiko zenuke?

Koplak

Badator Bapatean 2023 bertso bilduma


Urtero legez, Bertsozale Elkarteak urteko bertsoaldi gogoangarrienen bilduma egin du, eta laster egongo da eskuragai. Bazkideok aukera izango duzue zuen alea eskatzeko, otsailean zabalduko dugun izen-emate orri baten bidez. Beraz, adi egon bertsozale.eus webgunera edo Bertsozale Elkarteko jakinarazpenetara.

Poto-Finixa



Bizkaiko Neguko Bertso Barnetegia: otsailaren 16tik 18ra

Udan soilik ez, neguan ere badaude egonaldiak gaztetxoentzat. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak Neguko Bertso Barnetegia antolatu du otsailaren 16tik 18ra, Gautegiz-Arteagako Baratze Baserri Eskolan. DBHko lehen mailatik Batxilergoko bigarren mailara arteko ikasleek hartuko dute parte asteburuan, bertsoez gozatzen eta elkarren arteko sarea sendotzen.



Gure kultura sustatzen dugu, gure *gizartearen* sustraitzea eta kohesioa *bultzatzeko*.



PUBLIZITATEA